



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

KOLUSIOZKO JOKABIDEAK KONTRATAZIO PUBLIKOAN: SPKLren 150. ARTIKULUA

2023



Hitzaurrea

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak (SPKL; 9/2017, azaroaren 8koa) bermatu nahi du kontratazio publikoa printzipio hauen arabera gauzatzea: lizitazioetan parte-hartzeko askatasuna, publizitatea eta prozeduren gardentasuna; lizitatzailen arteko diskriminaziorik eza eta tratu-berdintasuna; eta, besteak beste, bermatu nahi du ondasunak eskuratzea eta zerbitzuak kontratatzea, dauden premiak aldeztuz aurretik definituz, lehia askea babestuz eta eskaintza ekonomiko onuragarriena hautatuz.

Lehiaren Defentsari buruzko Legearen (LDL; 15/2007, uztailaren 3koa) 1. artikulua indarrez, kolusiozko jokabideak honako hauek dira: lehia eragozteak, murrizteak edo faltsutzea helburu duten edo hori eragiten duten edo eragin dezaketen hitzarmenak, erabaki edo gomendio kolektiboak, edo jardunbide hitzartu edo nahita paralelo oro.

SPKLren 69.2 eta 150.1 artikuluek aipatzen dute, kontratua adjudikatu

aurretik, kontratazio-organoak **nahitaez jakinarazi behar dizkiela** lizitazio publikoen barruan dagozkeen kolusiozko jokabideen **zantzu** funtsatuak lehiaren agintariei, zantzu funtsatuak diren txostenak eman dezaten.

Arreta lehia askearen babesean jarrita, SPKLren 150. artikulua ezartzen du kontratazio publikoko organoek nahitaez jakinarazi behar dituztela parte-hartzen duten adjudikazio-prozeduretan hautematen dituzten kolusiozko zantzuak. Dena den, ez zuen horretarako prozedura espezifikorik ezartzen.

Estatuko 2023ko Aurrekontuen Legeak SPKLren 150. artikulua aldatu du, eta prozedura espezifiko bat garatu du kolusiozko hitzarmenen balizko zantzuak dagokion lehiaren agintaritzari jakinarazteko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, **Lehiaren Euskal Agintaritzak / Autoridad Vasca de la Competencia (LEA/AVC)** da lehia askea bermatzeaz arduratzen den erakundea.



Lehiaren
Euskal Agintaritzak
Autoridad Vasca
de la Competencia



Lankidetza- helburua

1

Lehiaren aurkako jardunbide horiek hautemateko, ezinbestekoa da EAEko kontratazio publikoko organoak eta LEA/AVC lankidetzan aritzea; izan ere, oso jokabide kaltegarriak dira, eta kontu handiz eta modu sofistikatuan egiten dira, eta batzuetan oharkabean pasatzen dira.

2

Lehia-agintaritzak funtsezkoak dira kolusioaren aurkako borrokan. Garrantzitsua da kolusioari gehien axola duen fasean ekitea, hau da, kontratua adjudikatu aurretik. Horrek berekin dakar adjudikazio-prozedurak gauzatzen dituzten kontratazio publikoaren arduradunei ahalmena ematea kolusiozko jokabideak prebenitzeko eta hautemateko, bai eta prozeduran bertan haiei aurre egiteko (*2021/C 91/01 Komunikazioa, kontratazio publikoan kolusioari aurre egiteko tresnei buruzkoa*).

3

SPKLk administrazio publiko lizitatzailen esku jartzen ditu lehiaren agintaritzei kolusiozko jokabideak jakinarazteko bideak (132. eta 150. artikulua).

4

Gainera, LEAri buruzko 1/2012 Legeak aukera ematen du agintaritza horri galdetzeko ba ote dagoen kolusiozko zantzurik.

LEA/AVCri kontratazio publikoan kolusiozko zantzuak hauteman direla jakinarazteko prozedurak

- ♦ **SPKLren 150.1 artikulua**ren prozedura sumarisimoa

Manu honek prozedura sumarisimo bat sartzen du, eta, horren arabera, kontratazio-organismoek lehiaren agintaritzari (kasu honetan, LEA/AVC) jakinarazi behar dizkiote **erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuen** lizitazio publikoetan hautemandako **kolusiozko zantzu funtsatuak**, edo kolusiozko jokabideen susmagarriak diren enpresak **ABEE** baten bidez aurkeztu badira (SPKLren 69.2 artikulua).

Jakinarazpena **kontratua adjudikatu aurretik** egin beharko da, edozein unetan. Jakinarazpen horretan, zantzuen **azalpen zehatza** jaso behar da, bai eta kolusiotzat hartzeko **arrazoiak** ere, **kontratazio-espedientearen** kopia, lizitatzailer guztiek **aurkeztutako eskaintza** guztiak barne, hargatik ezertan eragotzi gabe SPKLren 133. artikuluan xedatutako **konfidentzialtasunaren betebeharra**.

LEA/AVCk dokumentazio gehigarria eskatu ahal izango dio kontratazio-organismoari, baldin eta igorpenean aipatutako zantzuekin zerikusia badu. Hala izanez gero, eskatutako dokumentazioa lehiaren agintaritzaren esku jarri beharko da, gehienez ere 3 egun balioduneko epean.

Dokumentazio hori LEA/AVCri igortzeak **lizitazioa berehala etetea** ekarriko du, **lizitatzailerak ez zaie jakinaraziko eta ez da argitaratuko**. Kontratazio-organismoak jarduera horien nahitaezko **konfidentzialtasuna** gorde beharko du une oro.

- ♦ Ondorioak

Behin LEA/AVCk informazio guztia jaso ondoren, **20 egun balioduneko epea** du **txosten** bat emateko, baldin eta kolusiozko praktiken zantzuak daudela uste badu.

Lehiaren agintaritzaren parte-hartzea kolusiozko jokabideen zantzu funtsatuak daudela baieztatzerik mugatzen da (SPKLren 150. art.), kontratazio-organismoak bere eskumenen esparruan dagozkion erabakiak har ditzan.

Txostenaren edukia



- ♦ **I. egoera: Kolusiozko zantzuak egotea**

LEA/AVCk txostenean adierazten badu **kolusiozko zantzu funtsatuak daudela**, kontratazio-organoak **eten egin dela jakinarazi eta argitaratuko du**, eta lizitatzailerak kalte dunei behar duten dokumentazioa igorriko die, hamar egun balioduneko epean beren eskubideak defendatzeko egokitzat jotzen dutena alega dezaten. **Gainerako lizitatzailerak eskaintzei buruzko alderdiak ez azaleratzeko** kontu handiz jokatu beharko da, eskaintzak aurkeztu diren kasuetan.

Kontratazio-organoak erabaki bat hartu beharko du: prozesutik **kanpo utzi** (zantzu funtsatuak daudela uste bada) **edo**, aitzitik, **etendura bertan behera utzi** (ez bada zantzurik ikusten). Horretarako, LEA/AVCren behar beste txosten erabili ahal izango du, zeinak 3 egun balioduneko epe luzaezinean eman beharko diren.


Kontuan hartuta emandako txostena, lizitatzailerak kalte dunen alegazioak eta frogak, eta, hala badagokio, etorkizunean arau-hausteak ekiditeko neurriak hartu izanaren egiaztapena, **kontratazio-organoak 10 egun balioduneko epean** ebatziko du egokia dena, modu **arrazoituan**.

Kontratazio-organoak kolusiozko jokabideen zantzu funtsatuak daudela ebazten badu, jokabide horren ardura duten lizitatzailerak kontratazio-prozeduratik kanpo utziko ditu, eta lizitatzailerak guztiak jakinaren gainean jarriko ditu, gero, etendura altxatu eta gainerako lizitatzailerekin kontratazio-prozedurarekin jarraitzeko, halakorik balego.



♦ 2. egoera: **Kolusiozko zantzurik ez egotea**

LEA/AVCk ondorioztatzen badu **ez dagoela kolusiozko jokabidearen zantzu funtsaturik**, **etendura bertan behera utzi** eta kontratazio-prozedura izapidetzen jarraituko du, arrazoi horregatik lizitatzailerik **baztertu gabe**. Gertaera hori ez da jakinaraziko edo publiko egingo.



♦ 3. egoera: **Txostena ez jasotzea**

Ez bada jasotzen LEA/AVCren **txostena 20 egun balioduneko epean**, kontratazio-organoak prozedura izapidetzen **jarraitzea** edo ezarritako **kontraesaneke prozedura hastea** erabaki ahal izango du.

Txosten hori kontratua adjudikatu arte eman daiteke.

Kontratazio-organoak lehiaren agintaritzaren **txostena** jasotzen badu **ebazpena eman aurretik**, **ezingo du** erabaki lizitatzailerik **baztertzea**, **baldin eta txosten horrek ondorioztatzen ez badu kolusiozko jokabidearen zantzu funtsatuak daudela**.

Kontratazio-organoak **txosten** hori jasotzean dagoeneko lizitatzailereren bat **baztertzea erabakitzen duen ebazpena eman bada**, **ebazpen hori baliogabetu ahal izango du**, egokitzen jotzen badu, **betiere kontratua oraindik adjudikatzeko badago**.



Kontratazio-organoak jarduketa horien **konfidentzialtasuna** gorde beharko du une oro, **frogak ez daitezen suntsitu**.

- **SPKLren 132.3 artikuluko prozedura**

Artikulu honetan xedatutakoaren arabera, **kontratazio-organoek**, **Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak** edo autonomia-erkidegoetako **kontratazio publikoaren arloko aholku-organoek** eta **errekurtso berezia** ebazteko **organo** eskudunek LEA/AVCri jakinarazi beharko diote, beren eginkizunak betetzean, kontratazio-prozesu batean hauteman duten lehia babesteko legeriaren balizko urraketa oro, eta, bereziki, **LDLren 1. artikulua** debekatuetakoa bada.

Gauzak horrela, SPKLren 150. artikulua garatu ondoren, prozedura hori **gainerako kontratuei eta lizitazio-prozedurei aplika dakieke**, zenbatekoa edozein dela ere.

- **Ondorioak**

LEA/AVCk, informazioa jaso ondoren, jasotako informazioa ikertzen du, eta LDLk debekatutako jokabideen arrazoizko zantzuak ikusiz gero, **zehapen-espeditante** bat irekiko du.



Kolusiozko jokabideen zantzuak



Zantzuak detektatzea

Kontratazio publikoko organoek arreta berezia jarri behar diete, besteak beste, lizitazio publikoen barruan honako forma hauek hartzen dituzten jokabideei:

- ♦ Lizitatzailer kopuru txikia.

Aurrekariak eta merkatu zehatz horretan dauden operadore ekonomikoak kontuan hartuta, aurkezten den lizitatzailer kopurua txikia izatea kolusiozko jokabidearen zantzu bat da.

- ♦ Antzeko eskaintzak.

Hainbat lizitatzailer eskaintza berdina (teknikoa eta/edo ekonomikoa) aurkezten badute ezein justifikazio objektiborik gabe, edo aurkeztutako eskaintzetan ortografia-akats, formatu eta adierazpen berberak daudela ikusten badira.

- ♦ Estaldura-eskaintzak.

Adjudikaziodun izan nahi ez, baizik eta beste batzuei «estaldura eman» nahi dieten operadoreek aurkeztutako eskaintzak, erakargarritasun gutxikoak edo batere gabekoak.

+ Zantzuak

- Azpikontratazioa.

Enpresa adjudikaziodunak lehiaketan parte hartzen duen hirugarren enpresa bat azpikontratatzeko du.

Erakargarritasun gutxiko eskaintza aurkeztearen edo eskaintzarik ez aurkeztearen truke emandako konpentsazio bat izan daiteke.

- ABEE.

Banaka lehiatu daitezkeen hainbat enpresa, Aldi Baterako Enpresa Elkartek baten barruan antolatzen direnak, bestelako arrazoirik, beharrik edo arrazoi nabarmenik gabe.

- ABEEtan parte hartzen dute behar direnak baino enpresa gehiagok.

Lehia murrizten duen jokabide baten aurrean geundeko, lizitazio batean aurkeztu den ABEE bat behar baino enpresa gehiagok osatuta badago.

Enpresa-gehiatasuna ondorioztatu ahal izateko, ikusi behar da zein den lehia-gaitasuna izateko enpresen kopuru nahikoa, ABEEan aurkezteko.

- Pertsona berak aurkeztutako eskaintzak.

Baldin eta pertsona fisiko berak hainbat eskaintza aurkeztu baditu, haien artean loturarik ez duten hainbat enpresa lizitatzaileraren izenean. Lizitazioan lehia-asmorik gabe parte hartzeko hitzarmen baten zantzua izan daiteke.

- Jokabide-eremuak.

Enpresa bat edo batzuk kontratu beraren adjudikaziodun dira beti.



NORK DAUKA JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA?



Ofiziozko **kontratazio-organoak** edo kontratazio-mahaiak, **aholku-batzordeek** eta **kontratazio-auzitegiek** eskatuta.

NORI JAKINARAZI BEHAR ZAIO?



LEA/AVC

94 403 28 00

infocompetencia@avdc.eus

<https://www.competencia.euskadi.eus/hasiera/>

NOLA JAKINARAZI BEHAR DA?



Kontratu harmonizatuak

(SPKLren 150. artikuluko prozedura)

Beste kontratu batzuk

(SPKLren 132.2 artikuluko prozedura)

ZER AURKEZTU BEHAR DA?



Hautemandako zantzu funtsatuen azalpen zehatza eta arrazoiak + kontratazio-espedientea + lizitatzailerak guztiek aurkeztutako eskaintza guztiak.

NOIZ JAKINARAZI BEHAR DA?



Kolusiozko zantzu funtsatuak hautematen direnean. Erregulazio harmonizatuko kontratuen kasuan (SPKL, 150.1), jakinarazpena **adjudikatu aurretik** egin behar da.

BADUZU KONTSULTARIK?



Kontratazio publikoaren barruan egon daitezkeen **zantzuei** buruzko edozein **zalantza** argitzeko, **kontsultatu LEA/AVC**ri (LEAL, 3.5 art.)



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

Ertzilla kalea 4, 2., 48009 Bilbo

Telefona: +(34) 94 403 28 00 Helbide

elektronikoa: infocompetencia@avdc.eus

<https://www.competencia.euskadi.eus>



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**